

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Enrike Lekuona Artsuaga

*Oiartzun,
Gipuzkoa
(1928-2019)*

Aurkibidea



Biografia



Bederatzi senidetatik bera gelditu zen baserrian, Borrondegín. Baina bizitzaren gorabeherengatik toki askotara ailegatu izan da Enrike. Lehenengo ikasketak Karrikako eskolan egin zituen, eta Donostiako jesuitenean eskolak jaso zituen, lanaren truke. Soldadutza Leongo meategietan egitea aukeratu zuen. Paper-fabrikari mutil kozkorra zenean hasi zen lanean eta industria-erreformak bete-betean harrapatu zuen; horregatik, Europako hainbat herritarra joan behar izan zuen makina berriak ezagutzera. Europak eraman duen bidea hartzen ari garela dio, urte gutxitan galduko direla baserria eta garai bateko patxada. Maitxo emaztearekin batera egin genion elkarrizketa.

Zintak

OIA-057

- **Proiektua:** Oiartzuarren baitan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Lardi, Ane
- **Data:** 2007-10-10
- **Iraupena:** 62 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Lardi, Ane

OIA-058

- **Proiektua:** Oiartzuarren baitan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Lardi, Ane
- **Data:** 2007-10-10
- **Iraupena:** 52 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Lardi, Ane

OIA-059

- **Proiektua:** Oiartzuarren baitan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Lardi, Ane
- **Data:** 2007-10-10
- **Iraupena:** 52 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Lardi, Ane

Pasarteak

1. Erreka, muga

- **Erref:** OIA-057/002
- **Iraupena:** 0:02:54. **Hasi:** 00:08:40. **Bukatu:** 00:11:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

<p>Maitxoren jaiotetxea, Zabale, Ergoien dago, eta Enrikerena, Borrondi, Karrikan. Baina eskritura zaharretan Borrondi Ergoien sartzan zela aipatu digute. Karrikako erreka.</p>

2. Apaiza, larri

- **Erref:** OIA-057/003
- **Iraupena:** 0:00:51. **Hasi:** 00:11:34. **Bukatu:** 00:12:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

<p>Lehen, jaio orduko bataiatzen zen eta entierroak ere garrantzitsuak ziren. Purgatorioa. Enrikek gertaera bat kontatu du entierro baten gainean.</p>

3. Apaizei errespetua

- **Erref:** OIA-057/005
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:14:50. **Bukatu:** 00:17:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera

Laburpena:

Maitxo esneketara joaten zen astoarekin. Askotan belauniko jarri behar izaten zuen. Makina bat aldiz belauniko jarria da, apaiza pasatu bitartean. Elizara joan ezin zutenei jauna ematen ibiltzen ziren apaizak. Enrike: errespetua apaizari, txapela kendu, berorika...

4. Baserrirako

- **Erref:** OIA-057/007
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:21:10. **Bukatu:** 00:22:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:

Enrike gelditzen zen Borrondin. Baserrian, haziendarekin gehiena aritzen zena gelditzen zen ia gehienetan. Inori galdetu gabe bidea hartzen joaten zen.

5. Borrondi baserria

- **Erref:** OIA-057/011
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:23:40. **Bukatu:** 00:24:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

<p>Baserri koxkorra zen Borrondi. Esne nahikoa ateratzen zuten eta garai hartan hori asko zen. Gaztetan lana erruz egiten da. Haserretzeko denborarik ez da izaten.</p>

6. Gaztetan lana eta dantza, biak

- **Erref:** OIA-057/013
- **Iraupena:** 0:03:12. **Hasi:** 00:27:15. **Bukatu:** 00:30:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:

Borrondin behiak zituzten, esnetarako behiak. Maitxo baserrian ikasita etorri zen. Elkar ezagutzen zuten. Lehen denek ezagutzen zuten elkar. Bileretara nora joaten ziren: Altzibar, Ergoien eta Txikierrdira. Mutilak eta neskak aparte, koadrillan. Auzo askotakoak elkartzen ziren.

7. Soldadutza, Leongo meategietan

- **Erref:** OIA-057/014
- **Iraupena:** 0:02:23. **Hasi:** 00:30:27. **Bukatu:** 00:32:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

Laburpena:

<p>Enrikek Leongo meategietan egin zuen soldadutza. Oiartzuar batzuk joanak ziren aurretik, Francoren garaian. Han ikasi zuen erdaraz.</p>

8. Karrikako eskola

- **Erref:** OIA-057/015
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:32:50. **Bukatu:** 00:34:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

<p>Karrikako plazan zegoen eskola. Gero jarri zuten Iturburun. Lehendabiziko maistra euskalduna zen, baina gerran bidali egin zuten. Gero fundamentu kaxkarra egon zen; batzuetan izaten zen eskola, eta besteetan, ez. Azkenean maistra bat etorri zen kanpotik, familia osoarekin.</p>

9. Eskolan, erdaraz

- **Erref:** OIA-057/017
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:35:00. **Bukatu:** 00:35:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Maistra erdalduna zen eta erdaraz ematen zituen eskolak, baina maistraren alabak ikasi zuen euskara, Karrikako haurrekin ibilian. Maitxo Ergoiengo Aierdira joaten zen eskolara eta han ere erdaraz aritzen ziren.

10. Aldaketak heziketan

- **Erref:** OIA-057/019
- **Iraupena:** 0:03:59. **Hasi:** 00:36:21. **Bukatu:** 00:40:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Dotrina

Laburpena:

<p>Eskolatik ez zituzten ekartzen etxerako lanak, gaur egun bezala. Zein liburu erabiltzen zituzten. Garai hartan, ikasketak baino garrantzitsuagoa zen dotrina. Baserritarrek ez zuten segitzen ikasten. Maitxo zatiketak ikasi gabe gelditu zen eta ahizpak erakutsi zion gero.</p>

11. Arropa gutxi

- **Erref:** OIA-057/021
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 00:41:50. **Bukatu:** 00:43:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

<p>Batzuk ez ziren eskolara joaten, arroparik ere ez zeukatelako. Zabalekoek etxetik urrutira joan behar izaten zuten arropak garbitzera.</p>

12. Lanaren truke, eskolak

- **Erref:** OIA-057/022
- **Iraupena:** 0:02:14. **Hasi:** 00:43:16. **Bukatu:** 00:45:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolara herritik kanpo

Laburpena:

Enrike Donostian ere aritu zen ikasten. Amak lehengusua jesuita zuen, eta, haren bitartez, Colegio San Ignacion aritu zen. Lanaren truke eskolak jasotzen zituen.

13. Haur langileak

- **Erref:** OIA-057/023
- **Iraupena:** 0:02:17. **Hasi:** 00:45:30. **Bukatu:** 00:47:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Ekonomia eta industria » Lantegiak

Laburpena:

<p>Enrike 15 urterekin hasi zen lanean, Errenteriako paper fabrian. 16 urtera arte ez zen libre gaueko txandan lan egitea, baina osabaren bitartez lortu zuen lanean hastea. Arrebaren bizikletan joaten zen. Lehendabiziko sosekin argia jarri zion bizikletari. Hura bai luxua!</p>

14. Oiartzungo txirrindulariak eta pilotariak

- **Erref:** OIA-057/024
- **Iraupena:** 0:02:13. **Hasi:** 00:47:47. **Bukatu:** 00:50:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Txirrindularitza
- Aisia » Kirola » Pilota

Laburpena:

<p>Enrikeren anaia, Joakin, txirrindulari ona zen. Bizkaiko Bira irabazi zuen. Oiartzungo txirrindulariak: Zabaleta, Mitxelenatarrak... Garai batean pilotari ezagunak ere baziren herrian.</p>

15. Pilota

- **Erref:** OIA-057/026
- **Iraupena:** 0:00:25. **Hasi:** 00:50:35. **Bukatu:** 00:51:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Pilota

Laburpena:

Xanistebanetako pilota partidak. Pilotariak.

16. Aurrezki kutxara beharrean, dirua apaizari

- **Erref:** OIA-057/029
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 00:54:10. **Bukatu:** 00:55:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Maitxok gogoan du dotrinera joaten zirenean dirua ematen ziotela apaizari. Hark libreta batean sartzen zuen, aurrezki kutxan. Ezkontzean diru hori berreskuratzen zuten.

17. Apaizen indarra

- **Erref:** OIA-057/030
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:55:53. **Bukatu:** 00:58:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

<p>Garai batean, apaizek agintzen zuten herrian. Kongregazioak: baltsean ezin dantza egin. Erreterian denak baltsean, eta hemen denak sueltoan. Herrian, garai hartan, zazpi bat apaiz baziren. Izenak.</p>

18. Dantzazaleak, kaxkarinak

- **Erref:** OIA-057/031
- **Iraupena:** 0:03:07. **Hasi:** 00:58:23. **Bukatu:** 01:01:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

<p>Baltsa nork dantzatzzen zuen esateko txibatoak bazeuden. Dantzan ibiltzen zirenak 'kaxkarinak' ziren. Ez zen bikotea izan beharrik dantza egiteko; aurretik ere eskatzen zen. Ezetz esaten zuten neskak ere baziren.</p>

19. Kaletarrak eta baserritarak

- **Erref:** OIA-058/003
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 00:03:28. **Bukatu:** 00:05:00

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea

Laburpena:

Kaletarrekin borrokan ez hasteko esaten zien aita, malizia handia izaten zutela haiek eta. Hika.

20. Errezoan

- **Erref:** OIA-058/007
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:11:30. **Bukatu:** 00:13:20

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Apaizak esandakoa bete behar izaten zen. Arrosarioa lanak egiten ari zirela errezatzen zuten: hostattikiyak lotzen, artazuritzen... Gaur egun, Elizak ez du hainbesteko indarra.

21. Heziketa etxetik hasten da

- **Erref:** OIA-058/010
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:23:30. **Bukatu:** 00:24:40

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Lehen, ttikitatik, etxetik, hasten zen heziketa. Enrike ez da gogoratzen aita jo zuenik, baina hark hitz bat esan orduko errespetua jartzen zuen.

22. Berorika, zuka, hika

- **Erref:** OIA-058/011
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:24:40. **Bukatu:** 00:26:30

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Berorika

Laburpena:

<p>Helduei errespetu gaitza izaten zitzaien. Asko ziren aitona-amonei berorika aritzen zirenak. Apaizei ere berorika. Hika-zuka-berorika.</p>

23. "¡Alto! ¿quién vive?"

- **Erref:** OIA-058/018
- **Iraupena:** 0:00:30. **Hasi:** 00:46:20. **Bukatu:** 00:46:50

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

<p>Gerra hasieran, Zabale hartu zuten tropek, eta Zabalekoak Emietara joan ziren, familiakoak baitzituzten. Baina Emieta inguruan, Arritxurietan ere bazeuden soldaduak. Haien ingurutik pasatzerakoan, "¡Alto! ¿quién vive?" oihu egiten zieten, eta hauek 'Española' esan, eta aurrera. Galbariomenditik etorri ziren tropak.</p>

24. Baserria galtzen

- **Erref:** OIA-059/002
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:02:30. **Bukatu:** 00:04:00

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

Lehen, esnearekin bakarrik ateratzen zen etekina. Gaur egun, irabazirik ez da, eta, gainera, galdu egiten da. Lehen, baserritarrak agintzen zuen erostunarekin; orain, alderantziz.

25. Jateko ohitura aldaketak

- **Erref:** OIA-059/004
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:07:20. **Bukatu:** 00:08:20

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

Lehen ez zen tomate gordinik jaten entsaladan. Enriquek soldaduskan ikasi zuen tomatea jaten. Hemen ez zen jaten; tifusa ematen zuela uste zuten. Soldaduek arbia ere jaten zuten.

26. Baserrian, lan eta lan

- **Erref:** OIA-059/006
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:09:00. **Bukatu:** 00:10:10

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzeta eta soroa
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Lehen, pentsua baserrian bertan egiten zen. Errejilloia. Hazienda ongi zaintzen zen; ahal zen onena ematen zitzaion. Lan asko egin behar zen. Lehen, baserritarrak ez ziren etxetik atera ere egiten.

27. Karrika: baserri auzoa

- **Erref:** OIA-059/008
- **Iraupena:** 0:03:35. **Hasi:** 00:10:40. **Bukatu:** 00:14:15

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

Baserri oneko alabek ez zuten nahi izaten zakotearekin lanera joaten zen senarrik, baina beraiek ere lan pila ederra egin behar izaten zuten. Karrikan baserri asko zegoen garai batean. Enriquek esaten du hemendik hamar urtera ez dela alerik geldituko. Karrikan zenbat esne ateratzen zen.

28. Arraskuerrota

- **Erref:** OIA-059/010
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:16:00. **Bukatu:** 00:17:00

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Baserria » Baserriko lanak » Errota

Laburpena:

<p>Arraskuerrotan irin ona egiten zen. Pentsua ere saltzen zuten. Gerraren ondoren errotak itxi zituztenean, Arraskuerrotako gizonak asmatu zuen gordean irina egiteko sistema, baina harrapatu egin zuten. Arraskuerrotakoa, Borrondikoa... Hernioko gurutzea jartzen aritu zirenetakoak ziren.</p>

29. Lan bikoitza

- **Erref:** OIA-059/012
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:18:20. **Bukatu:** 00:19:10

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:

Garai bateko amonek lana erruz egin behar izaten zuten etxeko lanak egiteko. Taloak egiteko bakarrik: aurretik ura ekarri, egurra garraiatu, beheko sua piztu...

30. Presondo eta Etxetxo

- **Erref:** OIA-059/014
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:21:40. **Bukatu:** 00:22:40

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)

Laburpena:

Karrikako taberna eta dendak: Presondo eta Etxetxo. Gerra garaian, bietan izaten zen bilera.

31. Itzainak

- **Erref:** OIA-059/015
- **Iraupena:** 0:03:50. **Hasi:** 00:22:40. **Bukatu:** 00:26:30

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Itzain asko ibiltzen zen Karrikan. Lorra: egurra arrastaka ateratzen zen menditik. Itsasontziak egiteko pertika luzeak ateratzen zituzten. Pertika bat ateratzeko, zortzi idi pare: bertsoak jarriak. Itzainak nor ziren. Gertaera: bi behi pare, bakoitza bere gurdiekin, etxera bidali zituzten jabeek, eta beraiek tabernan geratu ziren goizaldera arte. Arlepoko meategiak.

32. Errepiderik ez

- **Erref:** OIA-059/017
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:27:40. **Bukatu:** 00:29:10

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Beste garraio batzuk
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

<p>Lehen, behia eta gurdiekin asko ibiltzen ziren. Iruinabarrenekoek halaxe ekartzen zuten jeneroa Donostiatik. Errepiderik ere ez zegoen. Artikutzakoa gerra aurretik egin zuten. Enrikeren aita aritu zen bertan lanean.</p>

33. Atsolorra

- **Erref:** OIA-059/018
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:29:10. **Bukatu:** 00:31:10

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak
- Aisia » Jai-giroa » Etxe barruko ospakizunak

Laburpena:

<p>Enrike gogoratzen da Borrondin norbait jaiotzen zen bakoitzean ospatu egiten zela: atsolorrarekin. Aranburuko izeba: zikiratzailea, partera, hildakoak janzen zituena, odolkiak egiten zituena... Esku onekoa zen.</p>

34. Aurrerapena

- **Erref:** OIA-059/020
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:32:40. **Bukatu:** 00:34:25

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Ekonomia eta industria » Boom industrialak
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

Enriquek dio beren aitona-amonetatik gurasoetara aldaketa gutxi egon zela, baina gurasoetatik beraietara bizimodua arrunt aldatu dela. Lehen, fabrika ale batzuk zeuden. Emakumeak ere joaten ziren lanera, baina ez zegoen industria asko. Gehiago zen basogintza, harrobiak, igeltserotza, ikazgintza... Txondorrek gogoan ditu eta baita mandozainak ere ikatza garraiatzen. Artikutzako bidea egin aurretik, Zaldingo bidetik ibiltzen ziren.

35. Zorrolako trenak

- **Erref:** OIA-059/022
- **Iraupena:** 0:03:35. **Hasi:** 00:34:55. **Bukatu:** 00:38:30

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak

Laburpena:

Donostiako Udalak erosi aurretik ere jende asko ibiltzen zen Zaldingo bidetik Artikutzara. Beraiek ez zuten Zorrolako trenak ezagutu, baina gurasoek, bai. Trenbidea Pikabenea jauregikoena zen, aberatsak izaki.

36. Paper fabrika

- **Erref:** OIA-059/024
- **Iraupena:** 0:03:40. **Hasi:** 00:39:20. **Bukatu:** 00:43:00

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lantegiak

Laburpena:

Enrique urte askoan aritu da Errenteriako paper fabrian lanean. Oraindik haurra zela hasi, eta erretiratu zen arte. Erreforma handien lekuko izan da; kanpora joan behar izan zuten makina berriak ezagutzera.

37. Aldaketak industrian

- **Erref:** OIA-059/026
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:43:50. **Bukatu:** 00:46:30

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Ekonomia eta industria » Lantegiak

Laburpena:

Paper fabrika Euskal Herriko enpresa zen hasieran, baina gerraren ondoren,

Papelera Española izendatu zuten. Lehen, eskulan gehiago zuten, baina, makinak sartzen joan diren heinean, langileak erdira murriztu dira. Lehendabiziko jornala gogoan du Enriquek: zazpi duro eta bi pezeta. Astean kobratzen zen.

38. Greba

- **Erref:** OIA-059/028
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:47:40. **Bukatu:** 00:49:40

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Ekonomia eta industria » Lantegiak

Laburpena:

Hamar eguneko greba gogoan du Enriquek. Urte pila bat eduki zituzten soldata igo gabe. Guardia Zibilak etorri zitzaizkion etxera, lanera joatera behartuz. Sindikalak hasi ziren mugitzen eta orduan mugitu zen jornala.

39. Motoa, luxua

- **Erref:** OIA-059/030
- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 00:50:50. **Bukatu:** 00:53:50

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

Laburpena:

Beste lantokietan gehiago irabazten zen fabriketan baino. Motoa erostea luxua zen. Herrian gutxi zeukaten motoa; medikuak. Eta automobila ere gutxi; esneketariek eta.

40. Konformidade eta patxada handiagoa lehen

- **Erref:** OIA-059/032
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:55:30. **Bukatu:** 00:57:10

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

Zailtasun gehiago ezagutu zutelako edo, konformidade handiagoa zuten gure aurrekoek. Beste patxada bat zegoen. Gaur egun, presaka ibiltzen gara.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-12-10

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com